

2005EKO OTSAILAREN 23KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko otsailaren hogeita bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Honako zinegotzi hauek ez dira bertaratu: Igor Sarriegi Zumarraga eta Milagros Alvarez Novoa.

Aktan adieraziko da Gorka Lamy Insausti zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak adierazten du Eguneke Gai Zerrenda bidali ondoren mozio bat aurkeztu zela Udaletxean eta berak Osoko Bilkura honetara aurkezten duela eta Osoko Bilkuraren kontsideratziora jartzen duela presazko izaerakoa bezala tratatua izan ala ez.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du aurreko Osoko Bilkuran esan zuena esaten duela berriro ere.

Osoko Bilkurak, bozketa egin ondoren, aldeko zortzi botu (EAJ, EA), aurkako botu bat (PP) eta abstentzio batez (PSE-EE), onartu egiten du gaia tratatzea.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2005eko urtarrilaren 27an egindako ohiko eta ez-ohiko bilkuretako aktak eta 2005ko otsailaren 10ean egindako presazko ez-ohiko bilkurako akta, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Gorka Lamy zinegotzia bertaratzen da.

III.- FUTBOL ZELAIKO BIRMOLDAKETA ETA ALDAGELEN 6. ZERTIFIKAZIOAK.-

Arizti Haundi Futbol Zelaiko Birmoldaketa eta Aldagelak proiektuaren obra zuzendaritzak lan hauen seigarren zertifikazioak luzatu ditu. Futbol Zelaiaren Birmoldaketa laren seigarren zertifikazioa 8.135,66 eurotako da eta Aldagela proiektuaren seigarren zertifikazioa 25.987,43 eurotako.

Obra zertifikazio hauek udal teknikarien oniritzia jaso dute.

Hau kontutan izanda eta zertifikazio hauek aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, berauek onartzea erabakitzen du.

IV.- CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.A.REKIN LUR TRUKAKETA.-

Udal Osoko Bilkurak, horretara bideratutako espedientea izapidatu ondoren, 2004-ko maiatzaren 26ko dataz, Arau Subsidiarioetako S.4.1eko – Elosgi 2 – 91 m²tako lursailaren kalifikazio juridikoa aldatzea erabaki zuen behin betikoz, herri jabari eta erabileratik ondare edo bere ondasun modura jarritz.

Espedientean adierazten den kalifikazio juridiko aldaketa hori gero lursail hori Construcciones Aburuza, S.A.ren lursail batengatik trukaketa egin ahal izateko egin zen.

Planteatzen den trukaketan, Udalak Arau Subsidiarioetako S.4.1eko 91 m²tako lursail hori emango lioke Construcciones Aburuza, S.A.ri eta honek berriz Arau Subsidiarioetako S.4.2 eta S.4.3 lursailetatik – Hirigoi 4-6 – bakandutako 96 m²tako lursaila. Udalak Construcciones Aburuza, S.A.ri emandako lursaillean honek lurrazpiko garajeak egingo ditu, S.4.1ko lursail pribatuan lehendik aurrikusten ziren baino lau garaje gehiago egingez.

Espedientean dagoen txosten teknikoaren arabera bi lursailtako metro bakoitzaren baloraketa berdina da eta ondorioz bi ondasunen arteko baloraketaren aldea bietan handiena daukanaren %40a baino txikiagoa da. Bestalde metroetan Construcciones Aburuza, S.A.k jasotzen dituen gehiegizko metroengatik, honek konpentsatu egingo luke Udalak.

Alkateak esaten du Construcciones Aburuza, S.A.k Uhaitz 2-3 etxeetako gas depositua lurpetik atera eta kentzearen lana hartu duela bere gain eta lan honek suposatzen duena metroen arteko aldearen baloraketaren gainetik dagoela eta beraz Udalak ondo konpentsatuta gelditzen dela.

Guzti hau kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Akordio honen azalpen zatian adierazten den lur-trukaketa onartzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea Udalaren izenean aurreko akordioa behar bezala amaitzeko dagozkion izapideak egin eta behar diren dokumentuak izenpetu ditzan.

V.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREKIN HITZARMENA.-

Udal Osoko Bilkura honek Lazkaoko Udaleko Kolektoreetako Isurketak Araupetzen dituen Erregelamendua onartua du. 2003ko azaroaren 27ko Osoko Bilkuran eman zitzaion haserako onarpena, hain zuzen ere, eta jendaurrean edukitako hogeita hamar egunetan inolako erreklamaziorik aurkeztu ez zenez, onarpen hau behin betikoa bihurtu zen.

Orain estolderia sarera isurketekin zerikusia duten zenbait eginkizunen egitea Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren esku uztea planteatzen da eta horretarako Gipuzkoako Ur Kontsurtzioa eta Udal honen artean izenpetzeko hitzarmenaren berri ematen da.

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, eta beraz Udal Osoko Bilkura osatzen dutenen legeko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Udal Estolderi Sareari dagozkion jarduerak burutzeko Gipuzkoako Ur Kontsurtzioarekin Hitzarmena onartzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea hitzarmen hau formalizatzeko beharrezko diren hainbat dokumentu publiko nahiz pribatu izenpetzeko.

VI.- "UTZI PAKEAN LAZKAO" MOZIOA.-

Areria Zutabeak izenpetutako mozioak honela dio:

"UTZI PAKEAN LAZKAO!"

Azken hilabete honetan, Espainiako segurtasun indarrak bi aldiz izan ditugu herrian, bertako seme diren Anitz Eskisabel eta aita Juan Joxe Agirre jazarriz. Era berean, Garikoitz Mujika ere Frantziako poliziak atxilotu egin du, gatazkaren gordintasuna agerian jarri.

Gertakari latz hauen aurrean Areria Zutabea herri plataformak, ondorengo hau adierazi nahi du:

- 1.- Jazarpen polizial honen aurrean, gure kezka agerian jarri nahi degu eta bide batez atxilotuta hauen bidegabekeria salatu nahi dugu.
- 2.- Gatazka politikoaren konponbidea, elkarrizketa eta euskal herritarren hitza eta erabakia errespetatzean datzala adierazi nahi dugu.
- 3.- Anitz, Garikoitz eta Juan Joxeri eta bere lagun eta familiei gure elkartasuna helarazi nahi diegu.
- 4.- Atxilotuta jarraitzen duten, Anitz eta Garikoitzen askatasuna eskatzen dugu.
- 5.- Azkenik, Lazkaora, hain denbora gutxian hainbestetan etorri diren espainiar indar polizialei, Lazkao eta bide batez Euskal Herria, behingoz, pakean utzi dezaten exijitzen diegu."

Alkateak (EAJ, EA) esaten du mozioaren aurka bozkatuko dutela eta gaineratzen du aurreko Osoko Bilkuran mantendu zuten jarrera bera mantentzen dutela. Zera gaineratzen du:

- 1.- Lazkaoko udalak berriro ere giza eskubide guztien aldeko aldarrikapena egiten du eta kasu guztietan errespetatuak izan daitezela exijitzen du. Zentzu honetan, giza eskubideen urraketa suposatzen duten jokabide guztien aurrean bere gaitzespena adierazten du. Ez dugu onartzen, bakoitzaren diskurtso politikoaren interesen arabera soilik komeni denean salaketa egitea.
- 2.- Testuinguru honetatik abiatuta, atxilotuak izan diren pertsonen giza eskubideak ere zorrozki errespetatuak izan daitezela exijitzen dugu. Alde batetik, errugabetasun presuntzioaren eskubidea defendatu eta aldarrikatu nahi dugu, komunikabideen bitartez ematen den erruduntasun irudiaren aurrean. Zentzu honetan, neurri prebentiboak gehiegikeriaz erabiltzeak presuntzio hori deusez dezakela ikusten dugu eta horrek pertsonengan kalte larriak sortzen ditu. Bestetik, atxilotuek dituzten eskubideak errespetatuak izan daitezen berme minimoak eman daitezela exijitzen dugu.
- 3.- Edozein gatazka konpontzeko bide elkarriketatuan sinesten dugula aldarrikatzen dugu, guztien errespetutik abiatuta eta bakoitzaren egitasmoak azaltzeko eta gauzatu ahal izateko bideak jorratuz. Lan horretarako soberan daude jarrera baztertzailak (Alderdien legearen aplikazioa) eta indarkeriaren erabilera (ETAren jarduera).
- 4.- Azkenik eta bizi dugun egoera politikoaren aurrean dugun jarrerak horrela dela argi erakusten badu ere, kasu honetan esplizitoki eta gaizki ulerturik egon ez dadin atxilotuen sendi eta ingurukoek bizi duten egoera zail eta zalantzazko honetan gure elkartasuna adierazi nahi dugu. Aldi berean gure elkartasun osoa ere adierazi nahi diegu modu batera edo bestera E.T.A.ren pertsekuzio, estortsio eta indarkeria jasotzen duten guztiei. Beraz lehenengo puntuan esaten den moduan ez dugu onartzen kondenak eta kasu honetan elkartasunak norbere interes eta diskurtso politikoaren arabera erabiltzerik.

Alkateak, Serna zinegotziari (PSE-EE), berak esandakoa mozio alternatibo bat ez dela baizik eta beraien jarreraren azalpena dela argitu ondoren, honek bere alderdiaren jarreraren azalpena egiten du; esaten du EAJ-EAk esandakoari batzen zaiola Alderdien Legeari esandakoan izan ezik. Gaineratzen edozein demokraten aurka egindako indarkeriaren erabilera gaitzesten ez duten erakundeek ez dutela joku demoratikoa parte hartu behar du horregatik mozioaren aurka bozkatuko dutela.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du ez zaiola iruditzen mozio hau Udalean aurkeztekoa denik baina aurkeztua izen denez esaten du bere erizpidea aurreko osoko bilkuran mantendu zuen bera dela. Gaineratzen du gauza berri bat badagoela, Aita Agirrerena hain zuzen ere, eta berenganako begirunea agertzen duela ze berarekin hitzegin duela behin baino gehiagotan eta oso portatu dela berarekin eta artxibategi guztiak erakutsi dizkiola eta esaten du baita ere gertakizun puntuala dela frantzik justiziak eskatuta eginbide batzuk egin izana eta hau ez dela kulturari egiten zaion inolako erasoa, komunikabideetan esan den bezala. Giza eskubideei dagokionez guztionak errespetatu behar direla, baita beraienak ere, ze askatasunik gabe daude eta eskoltekin bizitzera behartuta. Bukatzen du esanez guzti honengatik berak ezin duela mozio hau onartu.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aurkako botuekin, mozioa ez onartzea erabakitzen du.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du Aste Santua dela eta, hurrengo osoko bilkuraren eguna pixka bat aurreratu egingo dela.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.